

GURE AXOLAGABEKERIAK AHANZTURARA KONDENATZEN DITU

2022ko otsailaren 13an, Manos Unidasen Jardunaldi Nazionalaren egunean, Mezan honako otoitz hauek egitea proposatzen dizuegu, Herrialdeen aurrerabidearen alde ("Hainbat beharren aldeko meza", *Erromatar Meza-liburu berria*, 29. zenbakia, 1041. or.). Irakurgaiak, berriz, urteko VI. igandeari dagozkionak lirateke, C ziklokoak.



SARRERAKO MONIZIOA

Ongi etorri igande honetan Jainkoarekin bat egitera. Haren Piztuera eta Erreinuaren etorrera ospatzen dugu gaur. Jainkoaren senide garenok elkartzeko ospakizun honetan, Manos Unidas erakundeak, gosearen aurkako bere 63.

kanpaina den honetan, munduan gose diren milioika gizaki gogoan izateko deia egiten digu, eta gose horren sorburuan dagoen desberdinkeriaaren aurka borrokatzera. Hain zuzen ere, hauxe du aurtengo goiburua: "**Gure axolagabekeriak ahanzturara kondenatzen ditu**".

DIRU-BILKETAKO OTOITZA

(*Erromatar Meza-liburu berria*, 1041. or.).



IRAKURGAIETARAKO MONIZIOA

Jaunak gizakion benetako zoriontasuna eragozten duen oro alboratzeko deia egiten digu. Entzun dezagun arretaz haren Hitzaz, gure bizitzan poztasunari atek irekitzeko.

OTOITZA




Apaizak: Egin dezagun otoitz herrialde guztien alde, gizon-emakume guztien alde eta dauzkaten premien alde, inor ez dadin gure laguntzarik gabe gelditu.

- Elizaren alde, zorion betea iragartzen baitu bihotzez behartsu direnentzat eta injustiziaren eraginez sufritzen dutenentzat.
Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrialdeetako gobernuen alde, bidezko legeak onets ditzaten, interes ekonomiko eta ideologikoei beharrean gizakien onari eman ez lehentasuna.
Eska diezaiogun Jaunari.
- Ondasunak behar bezala banatzen ez direlako pobrezian bizi direnen alde, haiek ere bizitza duina izan dezaten.
Eska diezaiogun Jaunari.
- Manos Unidas bezala, herrialdeetan bakea eta justizia egoteko lanean ari diren erakundearen alde. Gure laguntzari eta otoitzari esker haien zereginean aurrera egin dezaten.
Eska diezaiogun Jaunari.
- Gu guztion alde, zoriontasun ebanjelikoa bizitzeko eskuzabalagoa eraikitzeko eginkizunean bat egin dezagun.
Eska diezaiogun Jaunari.

Apaizak: Zeru-lurrak zuzentzen dituzun Jainko ahalguztiduna, entzun zure Elizaren otoitzak, eta emaguzu zure ontasunen bidez baino lortu ezin den zoriona.

Jesukristo gure Jaunaren izenean.



DIRU-BILKETARAKO MONIZIOA ETA ESKAINTZAK

Gaur bildutako dirua Manos Unidas erakundeak behartsuei laguntzeko bultzatzen ari den proiektuetara bideratuko dugu. Ogia eta ardoa eskaintzearekin batera, gure diru-ekarpena ere eskainiko diogu Jainkoari.

ESKAITZEN INGURUKO OTOITZA

(*Erromatar Meza-liburu berria*, 1041. or.).



JAUNARTZEAREN OSTEKO OTOITZA

(*Erromatar Meza-liburu berria*, 1041. or.).



Borondatezko barauaren eguna
2022ko otsailaren 11, ostirala
Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2022ko otsailaren 13a, igandea

HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

▲ **Datua:** 2019aren amaieran (pandemia baino lehen), Ipar Amerikak eta Europak munduko aberastasunaren % 55 hartzen zuten, nahiz eta munduko biztanle helduen % 17 bakarrik bizi haietan. Aberastasun hori Latinoamerikak duenaren hirukoitza da, Indiakoaren laukoitza, eta Afrikakoaren hamarkoitza ia.

▲ **Herrialde batzuen eta besteen garapenaren artean dagoen desberdinkeria pobrezia eta indarkeria eragiten ditu, eta oinarrizko eskubideak gauzatzeko orduan desoreka dakar.** Jende askorentzat ezinezkoa bihurtzen da bizitza duina izatea.

▲ **"Jainkoak gizakientzat eta herrientzat sortu ditu lurrak. Horregatik, lurren fruituak berdintasunez banatu behar dira guztien artean, justiziaz eta eskuzabaltasunez".** (*Gaudium et Spes* 69).

▲ Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, Zeruko erreinua arima apalekoentzat izango baita batik bat, eta ez horrenbeste ondasun gutxikoentzat". (Leon I.a aita santua).

▲ **Bihotzez benetan pobrea denak hazkunderako eta entregarako aukera gisa ikusten du lagun hurkoa.**

▲ "Haraindiko egia bat existitzen ez bada, hura betez gizakiak bere nortasun betea lor dezan, orduan ez da existitzen gizakien arteko harreman bidezkoak bermatzen dituen printzipio segururik ere". (*Centesimus annus*, Joan Paulo II.arena, hemen: *Fratelli Tutti* 273).

▲ **Jaunaren Piztuera bizi-iturria da kristauontzat.**

KONPROMISOA HARTZERA BULTZATZEKO MONIZIOA

Hauxe da guk proposatzen dizueguna: Hegoaldeko herrialde bat aukeratzea, eta egunero haren alde otoitz egitea, bertako egoera onbideratzeko.



Kristau-prestakuntzarako material gehiago, hemen:
manosunidas.org/sensibilización-parroquias